

Fresatua egiteko lanek afekzioak sortuko dituzte AP-1ean Bergaran Eibarko norabidean ostiral gauetik astelehen goizaldera arte

Zoladurak konpontzeko 2026-2027 kanpainaren lanaren hirugarren lotearen parte dira



Eibarko norabidean Bergarako hegoaldeko eta iparraldeko lotuneen arteko zoladuraren berritzeak jarraipena emango dio asteburu honetan 2026-2027 kanpainari. Hortaz, maiatzaren 29tik, ostiral gauetik, ekainaren 1era, astelehenera goizaldera, zati horren – 133,500 eta 138,500 pk artean – fresatua egiteko lanak burutuko dira, eta horrek hainbat afekzio sortuko ditu.

Gauean guztiz itxita

Asteburuan zehar AP-1a bi unetan guztiz itxiko da Eibarko norabidean Bergara hegoaldeko eta iparraldeko lotuneen artean. Horiek horrela, ostiraletik, hilaren 29tik, larunbaterako, hilaren 30erako, gauan, eta larunbatetik, hilaren 30etik, iganderako, hilaren 31rako, gauan, 21:00etatik 09:00etara errepidea guztiz itxiko da.

Bi gau horietan AP-1a Eibarko norabidean erabili behar duten ibilgailuek Bergara hegoaldeko lotunean irten beharko dute eta GI-627tik Bergara iparraldeko lotuneraino joan beharko dute berriro AP-1era sartu ahal izateko.

Igandean ezkerreko erreia itxita

Behin larunbat gaueko lanak amaituta, Igandean, hilaren 31n, goizeko 09:00etatik aurrera Bergara Hegoaldeko lotunetik San Martzial tunelera – 133,500 eta 135,600 puntu kilometrikoen artean – ezkerreko erreia itxita jarraituko du egunean zehar lanekin jarraitu ahal izateko. Itxiera hau igandetik, astelehenerako, ekainaren 1erako, gauan amaituko da.



Bidegik jakinarazten du ordutegi hauek guztiak gutxi gorabeherakoak direla, izan ere, eguraldia bezalako faktoreek aldaketak eragin ditzakete. Horren harian, gomendatzen du zuhurtziaz gidatzeko eta seinaleen zein lanean arituko diren langileen instrukzioak jarraitzeko.

Zarautz, 2026-05-27

Trabajos de fresado provocarán afecciones en la AP-1 en Bergara sentido Eibar entre el viernes por y la madrugada del lunes

Se trata de trabajos correspondientes al tercer lote de la campaña de renovación de firmes 2026-2027



La renovación del firme entre los enlaces de Bergara Sur y Bergara Norte, sentido Eibar, dará continuidad este fin de semana a la campaña 2026-2027. Así, desde el viernes 29 de mayo por la noche hasta la madrugada del lunes 1 de junio, se llevarán a cabo las labores de fresado de dicho tramo – entre los pk 133,500 y 138,500 –, lo que generará diversas afecciones.

Cierre total por la noche

A lo largo del fin de semana la AP-1 se cerrará por completo en sentido Eibar entre los enlaces de Bergara Sur y Bergara Norte. Así, tanto la noche del viernes 29 al sábado 30 de mayo, como la noche del sábado 30 al domingo 31 de mayo, el tramo se errará completamente al tráfico entre las 21:00 y las 09:00 horas.

Durante esas dos noches los vehículos que utilicen la AP-1 sentido Eibar deberán salir en el enlace Bergara Sur para a través de la GI-627 atravesar la localidad y volver a incorporarse a la AP-1 en el enlace sde Bergara Norte.

Cierre del carril izquierdo el domingo

Una vez finalizados los trabajos del sábado por la noche, el domingo 31 de mayo, a partir de las 09:00 horas, se mantendrá cerrado el carril izquierdo entre el enlace Bergara Sur y el túnel de San Martzial – entre los pk 133,500 y 135,500 – para rematar los trabajos durante la jornada. Este cierre de carril finalizará la noche del domingo al lunes 1 de junio.

Bidegi informa que los horarios establecidos para realizar estos trabajos son aproximados, ya que pueden variar dependiendo de factores como la meteorología. En este sentido, aconseja circular con precaución y seguir las indicaciones establecidas tanto por las señales como por el personal de obra que se encontrará en el lugar.



Zarautz, 2026-05-07